

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Foru Aginduak

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

3407

303/2013 FORU AGINDUA, ekainaren 18koa, behin betiko onartzen duena Erriberabeitiko udalerriko I02 "Pozoscuro" planeamendu eremuko Hiri Antolaketakarako Plan Bereziaren espediente.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2013ko urtarrilaren 29an, Erriberabeitiko udalerriak erabaki zuen hasierako onarpena ematea I02 "Pozoscuro" planeamendu eremuko Hiri Antolaketakarako Plan Bereziari, eta hori 20 egun balioduneko epeaz jendaurrean ipintzea, eta halaxe egin zen, iragarki egokiak ALHAOren 15. zenbakian, 2013ko otsailaren 4koan, eta "El Correo" egunkarian 2013ko otsailaren 1ean argitara emanez. Hasierako onarpen horren berri eman zitzaion Rivabellosako Administrazio Batzarrari.

Bigarrena.- Jendaurrean ipinita egon zen epearen barruan, alegazio bat aurkeztu zen. Udaleko arkitekto aholkulariak horren inguruko txostena egin eta gero, udal korporazioak, 2013ko martxoaren 22ko bilkuran, erabaki zuen espedienteari behin-behineko onarpena ematea eta hori Foru Aldundiari bidaltzea, behin betiko onartzeko. Bertan 2013ko apirilaren 4an sartu zen.

Hirugarrena.- Diputatu nagusiaren uztailaren 21eko 62/2011 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, behin betiko onarpena eman ala ez Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari dagokio.

Laugarrena.- Plan Berezi honetan zehatz-mehatz antolatzen da I-02 "Pozoscuro" planeamendu eremua, Erriberabeitiko planeamenduko arau subsidiarioetan martxoaren 21eko 160/2013 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu zen aldaketa puntuala betez.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- PATENTES TALGO S.A. enpresak, I-02 "Pozoscuro" hiri lurzoru industrialeko eremua osatzen duten lau finken jabeak (horien lurzati zenbakiak honako hauek dira: Erriberabeitiko 1 poligonoko 1044, 2363, 2364 eta 2365), asmotan du leku horretan bere instalazioak handitzea, produkzio beharrianengatik. Asmo hori, zehazki, honetan datza: beste nabe batzuk eraikitzea, bide zabalgunea eta ibilgailuetarako aparkaleku pribatua handitzea, eta Rivabellosako Arasur urbanizazio publikoko bide publikotik I-02 eremurako sarbidea egitea.

Bigarrena.- Plan Berezi honen helburua hau da: izapidetu eta onartutakoan, dagoen lurzatiak aldatzea, enpresa sustatzaileak I-02 "Pozoscuro" eremuan egin nahi duen eraikuntza garapena burutu ahal izan dezan, hori baita fabrikarako aurreikusitako zabalkuntzaren eraikitze ahalbideak gehien optimizatzen dituen bidea.

Hirugarrena.- Plan Berezia gertatzeko baldintzetan finkatzen diren parametro bakarrak lurzatiaren gehieneko okupazioa eta eraikitako gehieneko azalera dira.

Uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuak, hirigintzako estandarrenak, 6.2. artikuluan eskatzen dituen berdeguneen eta espazio librearen nahiz landarediaren gutxieneko estandarren erreserbari dagokionez, horren balio bereko diru konpentsazioa ezarri da, aipatutako dekretuaren 7. artikuluan oinarrituz bidezkotuta.

Laugarrena.- Dokumentua Erriberabeitiko udalerriko hirigintza planeamenduaren eta legeria aplikagarriaren argitan aztertu ondoren, zuzendu beharreko zenbait arazo daudela egiaztatzen da. Ondoko idatz zatietan zehazten dira:

Disposiciones Administrativas

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

3407

ORDEN FORAL 303/2013, de 18 de junio, aprobación definitiva del expediente de Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito de planeamiento I02 Pozoscuro en el municipio de Ribera Baja.

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 29 de enero de 2013, el Ayuntamiento de Ribera Baja acordó aprobar inicialmente el Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito de planeamiento I-02 Pozoscuro, así como someter el mismo a información pública por el plazo de 20 días hábiles, hecho que fue practicado mediante la inserción de los respectivos anuncios en el BOTHA número 15, de 4 de febrero de 2013 y en el periódico "El Correo" de 1 de febrero de 2013. Dicha aprobación inicial fue notificada a la Junta Administrativa de Rivabellosa.

Segundo.- Dentro del plazo de exposición pública fue presentada una alegación. Una vez informada por el arquitecto asesor municipal, en sesión de 22 de marzo de 2013, la Corporación Municipal tomó el acuerdo de aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el 4 de abril de 2013.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto del Diputado General número 62/2011, de 21 de julio, la aprobación definitiva, si procediese, corresponde a la Diputada titular del Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo.

Cuarto.- El presente Plan Especial ordena pormenorizadamente el ámbito de planeamiento I-02 "Pozoscuro", en cumplimiento de la modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Ribera Baja, aprobada definitivamente por Orden Foral 160/2013, de 21 de marzo.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- La empresa PATENTES TALGO S.A, propietaria de cuatro fincas que conforman el ámbito de suelo urbano industrial I-02 Pozoscuro - cuyos números de parcela son los siguientes: 1044, 2363, 2364 y 2365 del polígono 1 de Ribera Baja- tiene previsto en esa ubicación ampliar sus instalaciones por necesidades de producción. Dicha previsión se concreta en la construcción de otras naves, el aumento tanto de la zona de playa de vías como del aparcamiento privado de vehículos, así como dotar al ámbito I-02 de acceso desde el vial público de la urbanización pública Arasur en Rivabellosa.

Segundo.- El objeto de este Plan Especial es, una vez tramitado y aprobado, modificar la parcelación existente para poder llevar a cabo la empresa promotora el desarrollo constructivo en el ámbito I-02 Pozoscuro pretendido, ya que ésta es la vía que optimiza al máximo las posibilidades edificatorias de la ampliación prevista para la factoría.

Tercero.- En las condiciones para la elaboración del Plan Especial sólo se fijan como únicos parámetros la ocupación máxima de la parcela y la superficie máxima construida.

En lo que respecta a la reserva de estándares mínimos tanto de zonas verdes y espacios libres como de vegetación exigidos por el artículo 6.2 del Decreto 123/2012, de 3 de julio, de estándares urbanísticos, se ha establecido su compensación económica equivalente justificado en base al artículo 7 de dicho decreto.

Cuarto.- Una vez analizado el documento a la luz del Planeamiento Urbanístico Municipal de Ribera Baja, así como de la legislación aplicable, se constata la existencia de una serie de aspectos a subsanar que se concretan en los siguientes apartados:

1. Plan Berezian definitutako I-02 planeamendu eremuaren mugaketa bidezkotu beharko da. Izan ere, horren barruan sartutako lursail batzuk, katastro egitura ikusirik, ez dira jarduketaren perimetroak inguratuta dauden lurzatiaren osagai.

2. Eremuko hirigintza eraikigarritasuna handitzearen ondorioz, bertan dauden azpiegiturak eraikuntza berriei zerbitzua emateko nahiko direla frogatu beharko da.

3. Lurzati pribatutik urbanizazioko bide publikorako sarbidea egiteko obrak, dauden azpiegituratarako hartune berrien konexioak eta, hala dagokionean, azpiegitura horien handiera egokitzearen ondoriozkoak ere bai, agertu beharko dira bai ekonomia eta finantza bideragarritasunari buruzko azterlanean, bai exekuzioa antolatzeke eta kudeatzeko zuzentzauei buruzko azterlanean ere –burutzeko epeak finkatuz–.

4. Ibilgailuak eremura sartzeko pasabide berria egitean, frogatu beharko da bete direla 68/2000 Dekretuak, Irisgarritasunari buruzko Legea garatzen duenak, bere II. eranskinaren 3.4 artikuluan finkatutako baldintzak, oinezkoentzako ibilbideen neurri dagokionez.

5. Zuzkiduretarako lurzoru erreserbaren ordezkoko kalte ordain ekonomikoa kalkulatzeari dagokionez:

a) Berdegune eta espazio librean zuzkiduraren ordezkoko kalte ordain ekonomikoa kalkulatzeko aintzat hartuko den azalera kalkulatzeko, dokumentu teknikoaren zenbait zatitan antzemandako hutsa zuzentzea, zeren eta, lurzoruaren azalaren ehuneko 6ri dagokiona erreserbatu ordezkoko, ehuneko hori alde aurretik pentsatuta zegoen hirigintza eraikigarritasuna handitzeari aplikatu baitzaio.

b) Uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 6.2.c) artikuluan landa-redirako xedatutako estandarri dagokion kalte ordaina jaso beharko da.

6. “Kalifikazio xehatu”ko plano bat eta “kudeaketa”ko plano bat aurkeztuko dira. Erriberabeitiko arau subsidiarioetako 354.a) eta c) artikuluan definitutako zehaztapenen arabera izan beharko dira. Aipatutako artikuluko b) idatz zatiaren adierazitakoari dagokion planoan (“forma planoan”), eraikuntzen garaierak jasoko dira (nola eta ez den Plan Berezian onartzen duen gehienekoa haietarako guztietarako).

7. 8. planoan (“Lurzatiaren behin betiko egoera. Lerrokapeak”) agertzen dena ikusirik, bidezkotu beharko da eraikuntzatik 1-2678 lurzatiaren hegoaldeko mugarako gutxieneko tarte ezarrita ez egotea, lurzatiara iristeko bide bat dagoela kontuan izanik. Era berean, Plan Berezian honek eremuaren hegoaldeko mugan ezartzen duen mugekiko tarte adieraziko da.

8. Dokumentuaren 3.2. idatz zatiaren titulua aldatu beharko da, zeren garatzen dituen zehaztapenak Plan Berezian honetako ordenantza arautzaileetakoak baitira.

9. Indarrean dagoen legeriara moldatuko dira, terminologia aldetik, ondoko kontzeptu hauek: “aprobetxamendua” eta “urratsen eta kudeaketaren plana”.

10. Aurkeztutako dokumentazioa euskari informatikoan aurkeztu beharko da berriro, eta oraingo edukari beste karpeta bat gehituko zaio, zeinean planoak *.dwg edo *.shape luzapena duten fitxategietan azalduko diren.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honakoa

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Erriberabeitiko udalerriko I-02 “Pozoskuro” planeamendu eremuko Hiri Antolaketa Plan Berezian espediente, ondoko baldintza hauekin:

1.- Plan Berezian definitutako I-02 planeamendu eremuaren mugaketa argitzea. Izan ere, horren barruan sartutako lursail batzuk, katastro egitura ikusirik, ez dira jarduketaren perimetroak inguratuta dauden lurzatiaren osagai.

2.- Ur hornikuntza eta hustuketako eta elektrizitate hornikuntzako azpiegiturak (Planeamendu Arautegiaren 53. artikulua) eta suteen aurkako babes sarea nahiko direla frogatzea.

1. Se deberá justificar la delimitación del ámbito de planeamiento I-02 definido en el Plan Especial ya que se incorporan unos terrenos que, a la vista de la estructura catastral, no forman parte de las parcelas cuya envolvente define el perímetro de la actuación.

2. Como consecuencia del incremento de edificabilidad urbanística del ámbito, se justificará la suficiencia de las infraestructuras existentes en el mismo para dar servicio a las nuevas edificaciones.

3. Las obras de acceso de la parcela privada al vial público de la urbanización, las conexiones de las nuevas acometidas a las infraestructuras existentes así como, en su caso, las derivadas del redimensionamiento de estas últimas, deberán reflejarse tanto en el estudio de viabilidad económico-financiera como en el estudio de las directrices de organización y gestión de la ejecución –estableciendo plazos de realización–.

4. En la ejecución del nuevo vado de vehículos de acceso al ámbito, se justificará el cumplimiento de las condiciones impuestas en el artículo 3.4 del anexo II del Decreto 68/2000 que desarrolla la Ley de Accesibilidad (en cuanto a la dimensión de los itinerarios peatonales).

5. En cuanto al cálculo de la indemnización económica sustitutoria de la reserva de suelo para dotaciones:

a) Corregir el error detectado en distintos puntos del documento técnico en cuanto al cómputo de la superficie que sirve de base al posterior cálculo de la indemnización económica sustitutoria de la dotación de zonas verdes y espacios libres puesto que, en lugar de reservar el equivalente al 6 por ciento de la superficie de suelo correspondiente a la edificabilidad urbanística pendiente de materialización, ese porcentaje se aplica al incremento de edificabilidad urbanística respecto a la previamente materializada.

b) Se incorporará la indemnización correspondiente al estándar para vegetación que dispone el artículo 6.2.c) del Decreto 123/2012, de 3 de julio.

6. Se aportará un plano de “Calificación Pormenorizada” y otro de “gestión” que se ajusten a las determinaciones definidas en el artículo 354 a) y c) de las Normas Subsidiarias de Ribera Baja; en el plano correspondiente al indicado en el apartado b) del mencionado artículo – “plano de forma”– se recogerán las alturas de las edificaciones (salvo que para todos ellos sea la máxima permitida por el Plan Especial).

7. A la vista de lo grafado en el plano 8 “Parcelario estado definitivo. Alineaciones”, se justificará la carencia del establecimiento de separación mínima de la edificación al linde sur de la parcela 1-2687, teniendo en cuenta la existencia de un vial de acceso a parcelas. Asimismo se indicará la separación a linderos que este Plan Especial establece en el límite sur del ámbito.

8. Se deberá modificar el título del apartado 3.2. del documento ya que las determinaciones que desarrolla son las de las ordenanzas reguladoras de este Plan Especial.

9. Se adecuarán a la legislación vigente a nivel terminológico los siguientes conceptos: “aprovechamiento” y “plan de etapas y gestión”.

10. Se presentará nuevamente en soporte informático la documentación aportada añadiendo al contenido actual una carpeta que contenga los planos en ficheros con extensión *.dwg ó *.shape.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,
DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito de planeamiento I-02 Pozoskuro del municipio de Ribera Baja, con las siguientes condiciones:

1.- Aclarar la delimitación del ámbito de planeamiento I-02 definido en el Plan Especial ya que se incorporan unos terrenos que, a la vista de la estructura catastral, no forman parte de las parcelas cuya envolvente define el perímetro de la actuación.

2.- Justificar la suficiencia de las infraestructuras relativas al abastecimiento y evacuación de aguas y suministro de energía eléctrica (art. 53 del R.P), así como la red de protección contra incendios.

3.- Aurreko puntua agertzea ekonomia eta finantza bideragarritasunari buruzko azterlanean, baita exekuzioa antolatzeke eta kudeatzeko zuzentarauei buruzko azterlanean ere.

4.- Frogatzea 68/2000 Dekretuak, Irisgarritasunari buruzko Legea garatzen duenak, bere II. eranskinaren 3.4 artikuluan finkatutako baldintzak bete direla.

5.- Zuzkiduretarako lurzoru erreserbaren ordezk diru kalte ordaina kalkulatzeari dagokionez:

a) Ordezko kalte ordain ekonomikoa kalkulatzeko aintzat hartuko den azalera kalkulatzean, dokumentu teknikoaren zenbait zatitan antzemandako hutsa zuzentzea.

b) Uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 6.2.c) artikuluan landa-redirako xedatutako estandarri dagokion kalte ordaina jaso beharko da.

6.- "Kalifikazio xehatu"ko plano bat eta "kudeaketa"ko plano bat aurkeztea. Erriberabitiko arau subsidiarioetako 354.a) eta c) artikuluan definitutako zehaztapenen arabera izan beharko dira. Aipatutako artikuluko b) idatz zatian adierazitakoari dagokion planoan ("forma plano"), eraikuntzen garaierak jasoko dira (nola eta ez den Plan Bereziak onartzen duen gehienekoa haietarako guztietarako).

7.- 8. planoan ("Lurzati behin betiko egoera. Lerrokapenak") agertzen dena ikusirik, bidezkotu beharko da eraikuntzatik 1-2678 lurzatiaren hegoaldeko mugarako gutxieneko tartea, lurzatietara iristeko bide bat dagoela kontuan izanik. Era berean, Plan Berezi honek eremuaren hegoaldeko mugan ezartzen duen mugekiko tartea adieraziko da.

8.- Dokumentuaren 3.2. idatz zatiaren titulua aldatu beharko da, zeren garatzen dituen zehaztapenak Plan Berezi honetako ordenantza arautzaileetakoak baitira.

9.- Indarrean dagoen legeriara moldatuko dira, terminologia aldetik, ondoko kontzeptu hauek: "aprobetxamendua" eta "urratsen eta kudeaketaren plana".

10.- Aurkeztutako dokumentazioa euskarri informatikoan aurkeztu beharko da berriro, eta oraingo edukiri beste karpeta bat gehituko zaio, zeinean planoak *.dwg edo *.shape luzapena duten fitxategietan azalduko diren.

Bigarrena.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan espediente Foru Aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezten eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan; horretarako, bi hilabete izango dira jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 18a.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

3399

Diputatuen Kontseiluak 2013ko ekainaren 25eko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.

- Foru dekretua:

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

22/2013 Foru dekretua, ekainaren 25eko Diputatuen Kontseiluarena, senideak zainzteagatik jaso beharreko dirulaguntzen zenbatekoak aldatu eta berriak ezartzen dituen. Otsailaren 12ko 11/2008, apirilaren 8ko 24/2008 eta abuztuaren 3ko 40/2010 foru dekretuen bidez onartu ziren zenbateko horiek, eta urriaren 26ko 63/2011 eta azaroaren 20ko 67/2012 foru dekretuen bidez eguneratu.

3.- Reflejar el punto anterior en el estudio de viabilidad económico-financiera así como el estudio de las directrices de organización y gestión de la ejecución.

4.- Justificar el cumplimiento de las condiciones impuestas en el artículo 3.4 del anejo II del Decreto 68/2000 que desarrolla la Ley de Accesibilidad.

5.- En cuanto al cálculo de la indemnización económica sustitutoria de la reserva de suelo para dotaciones:

a) Corregir el error detectado en distintos puntos del documento técnico en cuanto al cómputo de la superficie que sirve de base al posterior cálculo de la indemnización económica sustitutoria.

b) Se incorporará la indemnización correspondiente al estándar para vegetación que dispone el artículo 6.2.c) del Decreto 123/2012, de 3 de julio.

6.- Aportar un plano de "Calificación Pormenorizada" y otro de "gestión" que se ajusten a las determinaciones definidas en el artículo 354 a) y c) de las Normas Subsidiarias de Ribera Baja; en el plano correspondiente al indicado en el apartado b) del mencionado artículo - "plano de forma"-, se recogerán las alturas de las edificaciones (salvo que para todos ellos sea la máxima permitida por el Plan Especial).

7.- A la vista de lo grafiado en el plano 8 "Parcelario estado definitivo. Alineaciones", se justificará la separación mínima de la edificación al linde sur de la parcela 1-2687, teniendo en cuenta la existencia de un vial de acceso a parcelas. Asimismo se indicará la separación a linderos que este Plan Especial establece en el límite sur del ámbito.

8.- Se deberá modificar el título del apartado 3.2. del documento ya que las determinaciones que desarrolla son las de las ordenanzas reguladoras de este Plan Especial.

9.- Se adecuarán a la legislación vigente a nivel terminológico los siguientes conceptos: "aprovechamiento" y "plan de etapas y gestión".

10.- Se presentará nuevamente en soporte informático la documentación aportada añadiendo al contenido actual una carpeta que contenga los planos en ficheros con extensión *.dwg ó *.shape.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de junio de 2013.- La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

Anuncios

SECRETARÍA GENERAL

3399

Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión ordinaria celebrada el 25 de junio de 2013.

- Decreto Foral:

DEPARTAMENTO DE SERVICIOS SOCIALES

Decreto Foral 22/2013, del Consejo de Diputados de 25 de junio, que modifica y establece nuevas cuantías de las prestaciones económicas por asistencia personal, vinculadas al servicio y para cuidados en el entorno familiar, aprobadas por Decretos Forales 11/2008, de 12 de febrero, 24/2008, de 8 de abril y 40/2010, de 3 de agosto, respectivamente, actualizadas por Decretos Forales 63/2011 de 26 de octubre y 67/2012 de 20 de noviembre.